II 1

# EUSKADIKO LANGILERIARI LANGILE ABERTZALE BATZORDEEN AGIRIA

# COMUNICADO DE COMISIONES OBRERAS ABERTZALES A LA CLASE TRABAJADORA DE EUSKADI

ZABALTZEN DOKUMENTAZIO ZENTROA
TXT 10025

Egun, Euskadiko langilediaren masa erakundearen sorkuntzak, arlo hontan dagoen hutsuneari erantzuten dio. Hutsune hau es da egundo etaparena bakarrik, Euskadiko langile mugimendua bere sorkuntzatik bereizten duena baizik.

Gaur arte garbi dagoena zera da: Euskadiko nazional arazoaren erantzuna klase ikuspegitik —langile klasea hain xuxen— inongo langile masen erakundeak ez duela bere gain hartu zeren. ekintzan eman da eta ematen da, nazional arazoa xinpleki edo osoki ahazten dutela edo bere borroka ez doala zuzenki bideraturik dauden botereen aldatzea edo biek batera.

Hau horrela da zeren orain dela gutti arte gertatzen zen, euskal nazional mugimenduaren zuzendaritza nazionalista burgesiaren eskuetan zegoela eta aldi berean langile mugimenduaren zuzendaritza berriz, nazional arazoa *ekintzan* guztiz baztertzen zuten erakundeen eskuetan, honela, nazional arazoa kapitalaren eta lanaren arteko borrokatik aparteko arazo bat bezala agertzen zen.

Bainan, nazional zapalkuntzaren eta kapitalista esplotazioaren aurkako borrokak pasa dituen bideak —dibortziaturik agertzen baitziren— oso ezberdinak izan arren ere konzienteak diren Euskadiko langileen artean geroz da gogorrago hazitzen doa euskal proletargoarentzat bat edo bestea borroka berdina den ikuspegia, host nazional zapalkuntzaren aurkako borroka, klase borrokan ematen den ideia azaltzen ari da eta langiledi eta burgesiaren arteko borroka hau izanen dela —proletargoaren garaitzearekin— nazional arazoa soluzionatu ahal eginen duena.

El hecho de que hoy nos planteemos la creación de un organismo de masas trabajadoras vascas. Este vacío no es exclusivo de la etapa actual sino que caracteriza al movimiento obrero en Euskadi desde su nacimiento.

Es evidente que hasta hoy, la solución al problema nacional de Euskadi desde una perspectiva de clase —de clase obrera por supuesto— no la ha asumido ningún organismo de masas trabajadoras, ya que en la práctica se ha dado y se da que, o bien simple o llanamente olvidan el problema nacional o bien su lucha no va decididamente encaminada a cambiar las relaciones de poder existentes o bien ambas a la vez.

Esto es así ya que hasta hace poco tiempo ocurría que la dirección del movimiento nacional vasco estaba en manos de la burguesía nacionalista, y a su vez ocurría que la dirección del movimiento obrero estaba en manos de los organismos que abandonaban en la práctica totalmente la cuestión nacional, con lo cual ésta aparecía como una cuestión al margen de la lucha entre los trabajadores y el capital.

Pero a pesar de los diferentes caminos por los que ha transcurrido la lucha contra la explotación capitalista y la lucha contra la opresión nacional —que aparecían divorciadas— va germinado cada vez con más fuerza entre los trabajadores conscientes de Euskadi, la visión de que una y otra es la misma lucha para el proletariado vasco, es decir, se va abriendo paso la idea de que la lucha nacional se da en el marco de la lucha de clases y de que esta lucha entre la clase trabajadora y la burguesía será la que posibilitará —con el triunfo del proletariado— la solución al problema de Euskadi.

La comprensión de que la lucha

Euskadin klase borrokak nazional moldea hartzen duela ulertzeak eta gaur Euskadin diharduten langile masen erakundeetan ikusten diren huts handiak egiztatzeak garamatza gaur euskal langile mugimenduan hutsune bat dagoela baieztatzera. Hutsune hau geure posibilitateen neurrian eta *Langile Abertzaleen Batzordek* (L.A.B.), euskal langileen erakunde honen sortzearekin betezen saiatuko gara.

Langile masen erakundeen golkoan huts handiak ematen direla baieztatzen dugunean ez dugu hutsean egiten. Geure ikuspegitik begiraturik, masa erakundea zer izan behar duen kontzetuan —hemen sartuko lirake politiku alderdien erarkin diren erakunde haik, egungo zapaltzaile baldintzetan egitura erdi-irekia planteatzen duten erakundeak, e.a. —beren ekintzan ere berriz erruak ikusten dira. Euskadin egun ekintzako erru hauk hontan zehaztu daitezke: nazional zapalkuntzaren aurkako borroka ekintzan baztertzea, langile mugimenduaren desarroiloak eta erradikaltasun gehiagotzeak esijitzen duen langintza bere gain ez hartzea, horrela gertakizun askotan erakunde atzerakoi bihurtuaz, maila legalista eta errebindikatibuetan gelditzea askotan... Guzti honek, langile mugimenduaren golokoan despolitizatze handi bat ekartzen du, berak hartzen dituen zuzenbideak —iraultzaileak— eskasak bait dira.

Huts hauek handiagoak egiten dira, Estatuko egoera krisialdikoa dela kontuan hartzen badugu behintzat ekonomikua bezala —bizitzaren garestitzean nabartzen den inflazio izugarrian, turismo eta auto-industriaren krisiak e.a. agertzen denez— politikua

de clases en Euskadi toma una forma nacional y al constatar que en el seno de los organismos de masas trabajadoras existentes hoy en Euskadi se observan una serie de deficiencias graves, es lo que nos lleva a afirmar que hoy en el seno del movimiento obrero vasco se da un vacío. Vacío que en la medida de nuestras posibilidades y con la creación de este organismo de trabajadores vascos Langile Abertzaleen Batzordea (L.A.B.), trataremos de llenar.

Cuando afirmamos que se dan grandes deficiencias en el seno del movimiento obrero o en los organismos de masas trabajadoras no lo hacemos gratuitamente. A nuestro modo de ver, en estos organismos se observan errores tanto de concepto de lo que debe ser una organización de masas —aquí entrarían aquellos organismos que son apéndices de un partido político, los organismos que plantean una estructura semi-abierta en las condiciones represivas actuales, etc... —como errores en su práctica. Estos errores de práctica se pueden concretar hoy en Euskadi, en abandonar en la práctica diaria la lucha contra la opresión nacional, en no asumir tareas que el desarrollo del movimiento obrero y su mayor radicalización imponen, convirtiéndose así en múltiples ocasiones en organismos de retaguardia, en estancarse en numerosos conflictos en conceptos legalistas y niveles exclusivamente reivindicativos... Todo esto produce una gran despolitización en el seno del movimiento obrero, toda vez que las orientaciones que recibe son escasamente revolucionarias.

Estas deficiencias se hacen cada vez más graves, si tenemos en cuenta que la situación en el Estado es de crisis, tanto económica —manifestada en la enorme inflación y su incidencia en la carestía de la vida, en la crisis

—etengabeko Ministru aldakuntzetan nabarmendua, "Ultra eta Aperturista" taldeen arteko indarketak, herrikoi eta langilediaren desatseginean...agertzen denez hau dena ordea, oligarkia auldu arren ere ez da nahikoa zeren oligarkiaren zenbait taldeen arteko aurkaldiak ez dute elkarren arteko arpegirik eta bestetik, herrikoi eta langile mailan diharduten banguardiek egun ez daude gaiturik —behar hainbat baldintza ez dagoenez momentoa ere ez da egokia— Boterea hartzeko asmoa izateko. Beraz egoera krisiskoa da, oraindik bere mailarik gogorrenera iritxi ez den krisia. Eta horregaitik, krisialdiko egoeratan da, proletargoak batasun borrokatzailea behin ere baino gehiago behar duen unea eta indarrak doblatu burges boterea menperatzeko.

Batasun borrokatzaile hau izanen da langile klaseari, egitura mailan, gorengo mailetan hots, langile masa erakunde bertan elkartzea erreztuko diona.

Bainan egitura batu honek helburu berdin batzuk behar dituela ulertzen dugu eta borrokako moldeak ere berdinak edo kontraesan batetan ez ditezela egon behintzat, momento honetan borrokak bakezko bakarrik egitea, erabat legalista direnak, erdi ireki diren egiturak egitea, horrela errepresioaren eskuetan utziaz— diren bezala, molde hauk ez ditugu inola ere onartzen.

Halabaina, bai gaude —eta berarengatik borrokatuko gara— batasun borrokatzailea, ekintzaren batasuna lortzeagatik eta horrengatik egungo langile masen erakunde ezberdinen koordinatzeagatik saiatuko gara. Ba, nahiz eta geure ekintza eratua Euska-

en la industria del turismo y del automóvil, etc...— como política —manifestada en los constantes "reajustes" ministeriales, en el forcejeo entre ultras y "aperturistas", en el descontento obrero y popular,...— que si bien debilita a la oligarquía no es suficiente para su derrocamiento ya que, por una parte, los enfrentamientos entre los diversos sectores de la oligarquía no tienen un carácter antagónico y por otra parte las vanguardias que trabajan a nivel obrero y popular no están capacitadas en el momento actual —ni el momento es adecuado pues no existen condiciones suficientes— para intentar el asalto al poder. La situación pues es de crisis; crisis que no ha llegado a su punto álgido. Y precisamente es en las situaciones de crisis en las que el proletariado necesita más que nunca la unidad combativa y redoblar los esfuerzos para resquebrajar así, por completo, al poder burgués.

Es esta unidad combativa la que posibilitará a la clase trabajadora unirse en niveles superiores, en niveles estructurales, es decir, en un mismo organismo de masas trabajadoras.

Pero entendemos que esta unión estructural requiere unos objetivos mínimos comunes y una concreción de las formas de lucha también comunes, o al menos que no estén en franca contradicción, como son en estos momentos el concebir las luchas como exclusivamente pacíficas, como legalistas a ultranza, concebir la estructura de forma semiabierta dejándola así a merced de la represión formas que en absoluto compartimos. Sin embargo sí estamos —y lucharemos por ello— por conseguir la unidad combativa la unidad de acción, y para ello trabajaremos por la coordinación de los diversos organismos de masas trabajadoras existentes. Si bien nuestra acción or-

di mailan eman, saiatuko gara batasun borrokatzaile eta bere koordinatzea Euskadi arloan bakarrik gelditu ez dadin, baizik, maila hontatik abiaturik maila handienak iristea, Espaini eta Frantsez Estatuetako langilediarekin koordinatzen hasiaz, bereziki Estatu hauetan, Euskal Herriaren askatasunerako borroka desarroilatzen delako.

Ondoren ematen ditugun prinzipio eratzaileekin batera, Euskadiko langile orori deia egiten diegu, *Langile Abertzale Batzordeen* (L.A.B.) inguruan taldekatzeko teorian eta ekintzan ikusten ditugun erru eta hutsuneak bere kritikarekin zuzentzen laguntzeko, berealako beharrak eraginda eguneroko borrokan elkartzeko eta aizkenik eurrerantzean, ezartzen diguten kapitalista esplotazioa eta nazional zapalkuntza desegiteko ausarki borrokatzera.

*L.A.B.-en Oinarrizko prinzipioak.*

a) Langile Abertzaleen Batzordeak (L.A.B.) nazionalki zapalduriko Herri (Euskadi) batetako masa erakundea izatearen bere kondizio baiezten du. Gisa honetan eta geure arazoari erantzun osoa eta zabala ematea interesaturik dagozen euskal langileak izanik, Euskadiko herria autogobernatu eta bere Nazional Berbakuntza eta Askatasunerako eskubidea libreki ezarri dezan, egun sufritzen dugun nazional eta klase zapalkuntzaren aurka borrokatuko gara berau kendu dezagun.

b) Kapitalak langileria esplotatzea deseginaz alde berean Euskadi-LAB-en azken helburua edo asmoa.

ganizativa se dará en el marco de Euskadi, trataremos de que la unidad combativa y su coordinación no se reduzcan al marco exclusivo de Euskadi, sino que partiendo de este nivel alcance los niveles máximos que pueda conseguirse empezando lógicamente por la coordinación de los trabajadores de los Estados Español y Francés, por ser precisamente en estos dos Estados donde se desarrolla la lucha del Pueblo Vasco por su liberación.

A la vez de que a continuación damos nuestros principios organizativos, hacemos un llamamiento a toda la clase obrera de Euskadi a agruparse en torno a **Languile Abertzaleen Batzordeak** (L.A.B.), a apoyar con su crítica a corregir los errores y deficiencias que en teoría o práctica observemos, a unirse en la práctica cotidiana dada su imperiosa necesidad, y en definitiva a luchar decididamente para eliminar la explotación capitalista y la opresión de que somos objeto.

**Principios fundamentales de L.A.B.**
(Langile Abertzaleen Batzordeak)

a) L.A.B. afirma su condición de organización de masas de un Pueblo (Euskadi) oprimido nacionalmente. En este sentido y en cuanto que obreros vascos interesados en dar una respuesta completa y global a nuestros problemas, lucharemos para que el Pueblo de Euskadi pueda auto-gobernarse eliminando la explotación de clase y la opresión nacional de que actualmente somos objeto y ejercer líbremente el derecho a su independencia y a su reunificación nacional.

b) L.A.B. pretende como fin último eliminar la explotación de la clase obrera por el capital realizando simultaneamente la Liberación Na-

d) Erdiesteko, *Euskal Langilediaren Batasuna* ezin-besteko faktore bat dela uste dute, zeren burges klasearen eta babesten dien Estaduaren aurkako borrokan, batasunik gabe ahula izanen litzake.

e) LAB-ek aipatzen duen batasuna, idazki hontan asaltzen dien prinzipio minimoetan oinarritzen da. Ideologia, politiku, konfesional, e.a. *berdintasun zehatzik* ez dugu nahi, baizik, elkartasunean jokatzeko gai diren Euskadiko langile gehienen iritzi batuen oinarri batzuek.

f) Beraz, ez gaude Euskadiko langilediaren klase batasunaren alde dihardunaz, Euskal Herriaren askatasun eskubidea onartuaz berealde borrokatzen diren inongo talde politikoen sindikal mugimendu edo masa erakundeen aurka. Horrela, gutti batzuk iruditu arren ere pertsona orok leku bat izanen du honen barruan.

g) *Batasun* hori ahal izateko, L.A.B.-ek ulertzen du, benetako *ordezkaritzan* oinarriturik lorturiko *barne demokrazia* behar beharrezkoa dela. Ordezkaritzaren prinzipioak eskatzen du kargu guziak behetik gora hautatuak izan ditezela eskatzen du, honela, basetik hasirik Batzorde bakoitzak aukeratuaz aurretik dagoen gorengo mailan ordezkaritza egiteko.

h) Abantaila ukanen du baseakinongo baldintza gabe karguak ezeztatzeko. Bestalde eta klandestinitateak ezartzen duen neurriak kontuan izanik, ardurazko lekuetatik langile gehienak parte hartu dezatela ahaleginduko da.

i) Egitamu honetan jarritako prinzipioek norberarenak eginik, maila guztiaten Euskal proletargoak benetako askatasuna lortu dezan borrokatzen behar beharrezkoa dela konziente izanik eta Euskadin bere lanindarra saltzen duen oro izan daiteke LAB-ko.

cional de Euskadi.

c) Consideran que para lograrlo constituye un factor imprescindible la **Unidad de la Clase Obrera Vasca,** ya que sin unidad resulta ineficaz la lucha contra las clases burguesas y contra el Estado que las protege.

d) La unidad obrera que preconiza L.A.B. está basada en los pri principios mínimos que se indican en el presente escrito. No pretendemos una **Uniformidad** ideológica, política, confesional, etc., sino solamente una base de acuerdos comunes a la mayoría de la clase trabajadora de Euskadi, sobre las que actuar conjuntamente.

e) No estamos por lo tanto, contra la línea de ningún grupo político, movimiento sindical u organismos de masas que reconociendo el derecho del pueblo vasco a su independencia persiga efectivamente la unidad de clase de los trabajadores de Euskadi. Asimismo todas las personas por minoritarias que parezcan tendrán un puesto dentro de ella.

f) L.A.B. entiende que para que esa unidad sea posible es imprescindible la **Democracia Interna** lograda sobre una base de auténtica **Representatividad.** El principio de representatividad exige que todos los cargos sean elegidos de abajo hacia arriba de forma que comenzando por la base cada **Batzorde** elija los miembros que han de representarle en la inmediata superior.

g) La base tendrá la prerrogativa de revocar los cargos incondicionalmente. Se procurará que rotativamente el mayor número de trabajadores participen en los puestos de responsabilidad con las limitaciones de la clandestinidad.

h) Podrán ser miembros de L.A.B. todos aquellos que vendiendo su fuerza de trabajo en Euskadi y siendo conscientes de la absoluta necesidad de luchar por una verdadera libera-

j) LAB-ek, ekintzan Euskadiko langilediaren masa erakundeen koordinaketa lantzeko asmoa azaltzen du.

k) LAB, mundu guziko eta espainol Estatuko herri ezberdinetako langileen artean internazionalista laguntzaren aldekoa azaltzen da, laguntasunerako baldintza premiazkoenak bezala jarriaz: LAB-en askatasunari itzala, Herri batzuren eta besteren masa erakundeen berdintasuna eta Euskadik bere autogobernu eta askatasun nazionalerako duen eskubidearen ezagupidea eta elkarganako askatasunean herririko harremanetatik sortua izatea eskatzen du.

l) LAB, euskal langilentzat egokituriko masa erakunde bezala, ondorengo hauengandik bere askatasuna berbaiezten du:
—Nagusigoaren interesei bere ekintza eskupetzen dien egitamuengandik eta kapitalisten interesengandik.
—Euskadiko nazional arazoa ekintzan ilundu edo baztertzen duten masa erakundeengandik.
—Politiku erakunde, alderdi eta edozein egitamu politikuengandik.

m) LAB, masen erakunde apartekoa bezala berea den gora-behera aurkestuko du gainerako Euskadiko Langile mugimenduan dihardutun erakunde eta taldeen aurrean.

n) LAB, ausnartzen da, laneko harremanen egitura ofizialak (Juradu Sindikatu, Magistratura, eta abar) deslangiletasun arpegia oso argi azaltzen duela eta gure klasearen borrokak asimilatu eta gutxituak gelditzeko bakarrik serbitzen du. Gure esplotatzaileei bakarrik serbitzen dien egitura baztertzetik iragaten du nahi eta nahiez, langileen benetako boterearen sorkuntza.

ción del proletariado vasco a todos los niveles, hagan suyos los principios contenidos en este programa.

i) L.A.B. expresa su propósito de laborar por la coordinación en la práctica de todos los organismos de masas de la clase trabajadora de Euskadi.

j) L.A.B. se muestra partidario de la colaboración internacionalista entre los trabajadores de los distintos pueblos del Estado Español y del mundo entero, proponiendo como condiciones indispensables para la cooperación: el respeto a la independencia de L.A.B., la igualdad de los organismos de unos y otros pueblos y el reconocimiento sin reservas del derecho de Euskadi a su independencia nacional. Todo esto exige que una acción conjunta nazca de las relaciones establecidas en régimen de independencia mutua.

k) L.A.B. como organización de masas propia de la clase obrera vasca reafirma su independencia repecto a :
—Los intereses de los capitalistas y de cualquier programa que subordine su acción a los intereses de la patronal.
—Los organismos de masas que en la práctica liquidan o hacen abstracción del problema nacional de Euskadi.
—Las organizaciones y partidos políticos y de cualquier programa

l) L.A.B. como organización de masas independiente presentará su propia alternativa organizada ante el resto de los grupos y organizaciones que operan en el seno del Movimiento Obrero de Euskadi.

ll) L.A.B. considera que la estructura oficial de las relaciones laborales (Jurado, Sindicato, Magistratura etc.) presenta un claro caracter antiobrero y sirve únicamente para contener, minimizar y asimilar la combatividad de nuestra clase. La creación de un Poder auténticamente obrero

o) LAB-ri, Espainol Estatuari eusten dioten egitura zapaltzaile eta langileen aurkakotasunaren arpegiaz konziente izanik gure lanerako, eratzeko eta borroka erak Estatu zapaltzaileak ezarririko araueri egokituak izas behar dutela iruditzen zaio. Faszismoaren aurrea egitura ireki eta izkutuko ez den bat planteatzea erru handia bat da. Euskal Langile Mugimenduarentzat, jarraipentasuna izanen duen masa erakunde tinko bat sortzea, izkutuko aparatu batek bakarrik egin dezake.

p) LAB-ek uste du, geure egungo egoera kapitalista sistimarengandik datorrela, gutti batzuen eskuetan produzioko bitartekoen jabegoa gordeaz, kapitalaren irabaziruntz zuzentzen du produzioa. Horregatik, ezarririk ditugun zapaltzaile egoeratik askatzeko, klaserik gabeko gizarte bateruntz bitarteko bakarra denez, sistima hau desegiteko egunetik egunera borrokatuko da LAB.

r) Horregatik, Euskal proletargoa borrokarako leku abantailagoetan jar dadin, LAB-ek bere ahaltasunaren barnean, geure azken helburuetaruntz mugitu eta ertzeko xedearekin, eratze eta hezketa lan sakon bat eta langileen arteko kontzientziatze egitamua eramateko ardura hartzen du.

s) Beraz, horrela, LAB-ek langileen batasuna guzien gainetik gordetzea beharrezko dela eta Euskadiko Langile Mugimenduaren golkoan beste abiadura batzuk egon daitezkela ulertuaz, masetako erakunde orori ekintza elkartuan parte hartu dezatela dei egiten die.

Euskadin, 1975.ko Maiatza.

pasa necesariamente por el rechazo de esta estructura que sólo sirve a nuestros explotadores.

m) L.A.B. consciente de ese carácter anti-obrero y represivo de las estructuras que sostienen al Estado opresor cree que debemos adecuar nuestros métodos de trabajo, de organización y lucha a las condiciones impuestas por el Estado opresor. Plantear ante el fascismo una estructuración abierta y no clandestina es un error gravísimo. Sólo un aparato clandestino permitirá dotar al movimiento obrero vasco de una organización de masas estable y con continuidad.

n) L.A.B. considera que nuestra situación actual proviene del sistema capitalista que amparándose en la propiedad de los medios de producción en manos de unos pocos, orienta la producción hacia el futuro lucro del capital. Por tanto L.A.B. luchará día a día por la destrucción de este sistema, hacia el camino de una sociedad sin clases único medio de liberarnos de la situación de explotación a que nos vemos sometidos.

ñ) Por ello, para que el proletariado vasco se coloque en posiciones de lucha más ventajosas, L.A.B., en la medida de sus posibilidades, toma el compromiso de realizar un profundo trabajo de educación, organización y de un programa de concienciación entre los trabajadores con objeto de movilizarnos y organizarnos hacia nuestros objetivos finales.

o) Asimismo, L.A.B. comprendiendo que pueden existir otras orientaciones en el seno del movimiento obrero de Euskadi y que es preciso salvar por encima de todo la unidad de los trabajadores, hace un llamamiento a todas las organizaciones de masas para que en todo momento participen en la acción conjunta.

Euskadi, Mayo de 1.975